

*Aurtengo traineru Liga hasi zenean, estropada bakoitzaren ondoren Isuntzak egindakoaz zortziko txiki bat jartzeko agindua jarri nion neure buruari, estropadaren iruzkintxo bat egingo zuena. Zuzen ala oker, zintzo behintzat bete dut konpromisoa.*

*Ale solteok sortan bilduta, hona hemen Isuntzak egin duen Ligaren nire ikuspegia.  
G.Kortabarria.*



**Uzt. 3 - A CORUÑA**  
Lekitarra 12.garren (12tik)

Coruñan jaso dugu  
puntutxo bakuna;  
emaitza ez da izan  
amesten genduna,  
baina ez da gaur amaitzen  
aurtengo jarduna:  
hobea izango da  
biharko eguna!

**U4 - A CORUÑA**  
7.garren

Geure aldera ekarrita  
segundoen dantza  
kanpora atera dugu  
atzoko arantza,  
eta izango den arren  
luze eta latza  
Coruñan hasi gara  
egiten gorantza!

**U 10 – DONOSTIA**  
11.garren

laz laugarren ginen  
Donostiko uretan;  
emaitza okerragoa  
da aurtengo bueltan,  
nahiz ez garen geratu  
a(ha)legin zorretan;  
hobeto egingo dugu  
Zierbenan domekan!

**U11 – ZIERBENA**  
2.garren

Zierbenatik etxera  
ez gatoz hasarre,  
geure lana ederki  
kunplituta gaude,  
(e)ta nahiz batzuk ez garen  
oso jainko zale,  
gaur Eolori loria  
eta gorazarre!

**U 17 – ORIO**  
8.garren

Ez gara itsasoratu  
baleen peskizan,  
arpoia bota dugu  
puntuen ehizan  
eta bost alekoa  
emaitza da izan,  
estimatzen duguna  
balea bailitzan.

**U 13 – GETXO**  
11.garren

Orion aurkia (e)ta  
Getxon ifrentzua,  
bigarren txanda izan da  
sari pozoitsua;  
Eolo ez zaigu izan  
gaur hain adeitsua:  
lan handia eta eskasa  
puntu probetxua.

**U 24 - CASTRO****9.garren**

Bi urteren ondoren  
Castrora barriro;  
txandako lehen postura  
nahiz ez garen igo,  
baikorrek izateko  
badugu motibo:  
zulotik goaz urruntzen  
geldiro, geldiro...

**U 25 – LEKEITIO****9.garren**

Haize (e)ta itsasoa  
putz eta kolpeka,  
latza izan da benetan  
gaurko lehiaketa,  
zaila da izatea  
etxean profeta,  
lau alez, baina, hornitu  
dugu puntu meta.

**U 31 – A 1****BILBO eta SANTURTZI**

(Covid 19agatik etxean geratu behar)

Bilbo (e)ta Abrarako  
ginen arren prestu,  
ez dugu birusaren  
hozkada saihestu;  
atzo (e)ta gaurko emaitzak  
ez zeuden gure esku,  
ea ahal garen Galizi(a)n  
sasoiko aurkeztu!

**A 7 – RIANXO****12.garren**

Trainerua ez ikutu!  
juezaren ordena,  
birusaren ondoren  
bigarren kondena.  
Saiatu gara, baina  
Isuntza azkena;  
Boiron leundu beharko  
Rianxoko pena.

**A 8 – BOIRO****11.garren**

Atzo Rianxo mikatza,  
gaur Boiro gazia!  
Ez zaigu gustagarri  
gerta Galizia.  
Tiranek moztu digu  
puntu distantzia;  
Zarautzen behar diogu  
kendu artazia!

**A 14 – ZARAUTZ****6.garren**

Kale eginda aurreko  
aste bukaeran,  
buelta eman diogu  
le(he)nengo aukeran,  
erremuak dantzatzuz  
guk dakigun eran,  
Zarauzko itsasoan  
egin dugu hegan.

**A 15 – ZARAUTZ****7.garren**

Bi egunetan lortuta  
emaitza bikaina,  
bideratua dugu  
aurtengo kanpaina;  
lau lehia falta dira  
burutzeko azaina:  
Ondarru, Hondarribi.  
Ares ta Moaña.

**A 21 – ONDARRU****9.garren**

Lau lehiako azken txanpa  
ederki da hasi,  
Ondarrun geure txanda  
dugu irabazi,  
(e)ta murriztu ondoren  
bi puntu Aresi,  
Hondarribira goaz  
artazi (e)ta guz(t)i.

**A 22 – HONDARRIBIA**  
9.garren

Ares ikusi dugu  
dabilela fuerte,  
bederatzigarrena  
ez daukagu merke,  
baina helburu handia  
dugu jada bete,  
jaitsiera (e)ta play-offa  
itxita aparte!

**A 28 - ARES**  
8.garren

Aste hon(e)tan joan gara  
Galizi(a)ra alai,  
etxe-lanak eginda  
lehiatzera lasai;  
baina ez dugu hartu  
Ares aldean jai:  
lau atzean uzteko  
izan da Isuntza gai.

**A 29 – MOAÑA**  
12.garren

Azkenak hasi eta  
azkenak amaitu;  
tartean gara, baina,  
egoki moldatu,  
(e)ta helburuak ditugu  
primeran burutu.  
Ea a(ha)l dugun txartela  
eguenian lortu!

**Aurtengoz**  
**AGUR LIGARI!**

Lau ontzi ibili gara  
elkarren segidan,  
geure liga jokatzu  
hamabien ligan,  
elkarren errespetuz  
beti kirol lehiari.  
Itzuli azkar, Zarautz, (e)ta  
zorte ona, Tiran!